



EVE | Ente Vasco
de la Energía

**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE/EVE)
KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, PROZEDURA
IREKIAZ, HONAKO KONTRATAZIO HAU EGITEKO:
EUSKADIKO BIZITEGI ALORREAN ENERGIAREN
ERABILERAREN INGURUKO IKERLANA EGITEKO
LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK**

ESPEDIENTE ZENB.:
EIN10.348

PROZEDURA IREKIA

KARATULA

ADJUDIKATZEKO ERA: Lehiaketa irekia.

ESPEDIENTE ZENB.: EIN10.348

A. KONTRATUAREN XEDEA

EUSKADIKO BIZITEGI ALORREAN ENERGIAREN ERABILERAREN INGURUKO IKERLANA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK KONTRATATZEA.

B. SAIL / ORGANO KONTRATATZAILEA

EEE, honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

- I.F.Z.: Q-5150001E
- Kontratazioaren pertsona/teknikari arduraduna: Alvaro Perez de LAborda
- Telefonoa: 94-403.56.63/ 94-403.56.98/
- Posta elektronikoa: alaborda@eve.es
- Kontratatzailearen profila: www.eve.es

C. AURREIKUSITAKO KONTRATUAREN BALIOA

- Aurreikusitako kontratuaren prezioa: 40.000 € (BEZa gabe).

D. IZAPIDEA

Ohikoa.

E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA

Eskaintzak edo proposamenak 2011ko azaroaren 2ko 12:00ak (hamabiak) arte jasoko dira.

F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

Proposamenak Energiaren Euskal Erakunde, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

H. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren prezioaren %3, BEZa gabe.

I. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

J. ZERBITZUA GAUZATZEKO EPEA

Epea 5 hilabetekoa da, kontratua esleitu de jakinarazpen egunetik kontatzen hasita.

Lekua: Energiaren Euskal Erakundea, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

K. BERMEEI DAGOZKIEN EPEAK

Ez dagokio.

L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

M. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.

N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA

Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeke erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
1	B gutun-azala. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak	
Irismena, metodologia eta zereginak	Lanen irismena, ezarritako helburuen arabera; garapen metodologikoa. Ikuspegi metodologikoaren eta lanak egiteko proposatzen diren zereginen egokitasuna.	20
Antolaketa, lan taldea eta lan programa	Egitasmoaren antolakuntza-eskema, lan taldearen egitekoak eta gaitasuna, eta ezarritako lan programaren balioespena.	25
Hobetzeko proposamenak	Pleguari egindako hobekuntza-proposamenak.	5
2	C gutun-azala. Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak	
Proposamen ekonomikoa	Aurrekontu ekonomikoaren balioespena eta haren justifikazioa.	50
GUZTIRA		100

C gutun-azalaren puntuak kalkulatzeko formula:

[Eskaintza onenaren prezioa] x 50 / [Eskaintzaren prezioa].

P. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

Q. LUZAPENA

Ez dagokio

R. LANAK ZATIKA JASOTZEA

Ez dagokio.

S. PREZIOAREN ORDAINKETA

- %20, kontratua sinatzean.
- %40, tarteko ordainketa batean, azken txostenaren zirriborroa ematean.
- %40, proiektuari lotutako azken txostena ematean, EEE/EV Eren oniritziarekin.

T. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

U. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaitan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBE sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Era berean, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundean aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaitan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa (bestak beste, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunaz diharduena eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege organikoa, Gizon eta Emakumeen arteko Benetako Berdintasuna lortzeari buruzkoa den legea, hain zuzen ere).



OINARRIZKO BALDINTZAK

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasotzen dena ere. Horrekin batera, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK (“EEE/EVE”) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (“KABI”) eta Kontratatzaillearen Eskakizuna atalean argitaratua (www.eve.es) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorritik.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera (“SPKL”). Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiei dagokienez, soil-soilik.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean “HAKLEO”), aurreko puntuan azaldutako gaiei dagokienez.
- Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

1.2. Lanak egiten arituko diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzailleek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua Plegu honen Karatularen “A” ATALEAN adierazia da.

Hori guztia baldintza teknikoan arabera, Zehaztapen Teknikoen Txostenean azaltzen dena. Plegu honetan jasoko dena, 5. eranskina, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako proiektua kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

3. AURREIKUSITAKO BALIOA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

a) Aurreikusitako balioa kalkulatzeko, SPKLen 76. artikulua xedatutakoa kontuan hartu da, BEZa gabe.

b) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.



Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).

c) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, EEE/EVEk ez ditu ordainduko, 5. eranskinean ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostenaren arabera.

4. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen "I" ATALEAN zehazten dena beteko da.

5. GAUZATZEKO EPEA

5.1. Gauzatze epea Plegu honen Karatularen "J" ATALEAN adierazitakoa izango da.

Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo EEE/EVEk lan programan onartuko dituenak izango dira.

5.2. 5. eranskineko Zehaztapen Teknikoen Txostenean lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarriz gero, ezinbestean bete beharko lirateke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

5.3. Karatularen "Q" ATALEAN hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke. Luzatzekotan, epea ez litzateke karatularen "J" ATALEAN aurreikusitakoa baino luzeagoa izango.

6. ADJUDIKATZEKO ERA

6.1 Karatularen "D" ATALEAN zehazten den bezala, EEE/EVEren KABIn 3. mailari dagozkien kontratuei aplikatzen zaizkien arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

(i) lehen fasean ("*Eskaintzen aurkezpena*"), interesatutako lizitatzailleek dokumentazio orokorra (A gutun-azala) eskaintza ekonomikoak (B gutun-azala) eta teknikoak (C gutun-azala) aurkeztu ahal izango dituzte;

(ii) bigarren fasean ("*Kontratistaren hautaketa*") lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, EEE/EVEk kontratua formalizatzeko lizitatzaillea hautatuko du; eta

(iii) hirugarren fasean ("*Formalizazioa*"), EEE/EVEk eta hautatutako lizitatzailleak kontratua sinatuko dute.



6.2 EEE/EVEk eta kontratistak men egingo diote informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioari, KABlen 6.(d) atalean ezarritako moduan.

6.3 Kontratazio-organoa “**B**” **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta hauxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeaz.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

7.1 Proposamenak aurkezteko epea zabalik egongo da 2011ko azaroaren 2ko hamabiak (12:00) arte.

7.2 Proposamenak honako helbide honetara bidali beharko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48001 BILBO.

7.3 Lizitatzailak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehieneko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.

7.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratueterako kontsulta-batzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako “**N**” **ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.

7.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 48. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean (8. eranskina) adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkatzeko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, EEE/EVEren aurrean. Enpresari horiek guztiek aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiek izenpetu behar dute adierazitako agiria.

Parte hartzeko zerbitzu-enpresa izatea eskatuko balitz, ezinbestekoa izango da, sailkapenak metatu ahal izateko (HAKLEOko 52. artikulua), aldi baterako elkarteko enpresa guztiek izatea beren esku zerbitzu-enpresen sailkapena.

7.6 Lizitatzailen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren



heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZa izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.

7.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, EEE/EVE erakundeko kontratatzailearen eskakizunean edo profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.

7.8 Lizitatuak ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Lizitatuak ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarra izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 129.3 artikulua arautzen duena beteko da.

Adierazitakoa betetzekoa izango bada ere, lizitatuak aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.

7.9 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.

7.10 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, EEE/EVEekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.

7.11 Izaera konfidentziala. Beharrezkotzat jotzen baldin bada, enpresa lizitatuak, sekretu teknikoak edo komertzialak direla eta, izaera konfidentzialtzat hartzen dituen informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, 7. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, eta hori egiteko arrazoiak azalduko ditu. Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak ez du izaera hori.

7.12 Lehiaketatik kanpo geratuko dira, EEE/EVEk behar bezala arrazoitu eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:

- a) Proposamenak epez kanpo aurkeztea.
- b) Eskatutako gaitasun profesional edo enpresariala ez aurkeztea.
- c) Plegu honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario, teknika edo profesionala ez aurkeztea.
- d) Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo aldi baterako beste enpresa lizitatuak batzuekin batera.
- e) Plegu honetan edo zehaztapen teknikoen pleguan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
- f) SPKLe eskatzen dituen baldintzak ez betetzea.



8 PROPOSAMENEN EDUKIA

8.1 Lizitzaileek hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan, datu hauek adieraziko dituzte: lizitzailearen izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen **"A" ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.

8.2 Hiru gutun-azalak karatularen **"F" ATALEAN** adierazten den helbidera bidaliko dira. Baldintza-orri honetako karatularen **"E" ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean.

"Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:

- **"A" gutun-azala:** "Lizitazio-espedientearen zenbakia: dokumentazio orokorra"
- **"B" gutun-azala:** "Lizitazio-espedientearen zenbakia: proposamen ekonomikoa"
- **"C" gutun-azala:** "Lizitazio-espedientearen zenbakia: proposamen teknikoa"

8.3 Baldintza-orri honetako 8.5. atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu "A" gutun-azalak, "B" gutun-azalak proposamen ekonomikoa jasoko du eta, azkenik, proposamenaren alderdi teknikoak adieraziko ditu "C" gutun-azalak.

8.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta EEE/EVEk uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.

8.5 "A" gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.

- EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako **"A" ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, "Dokumentazio orokorra" dela iragarritz.
- Dokumentazio administratiboaren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitzaileek eta Estatuko lizitzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenek nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz. Horrekin batera, 6. eranskina behar bezala beteta eta 11. eranskina behar bezala beteta eta sinatuta ere aurkeztuko dira.
- Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistroa agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte "A" gutun-azalean:
 - a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emalea, eta beste pertsonaren



baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berariazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.

- b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legeadiak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.
 - c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
 - d. Ardurapeko adierazpena, ahalmendutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Alderdi hori kreditatzeko, beteta eta izenpetuta aurkeztuko dituzte baldintza-orri honetako 2. Eranskina. Adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.
 - e. 6. eranskina behar bezala beteta.
 - f. 11. eranskina behar bezala beteta eta sinatuta.
- Baldintza-orriko karatulako "**G**" **ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du. Hautatutako enpresariak kontratua formalizatzen duenean, amaitu egingo da behin-behineko bermearen indarraldia, eta itzuli egingo zaie hura hautatuak izan ez diren lizitatzailerei.
 - Lizitatzailaren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala kreditatzeko, kaudimen hori dutela egiaztatzen duten honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Finantza-erakundeen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligatorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legeztatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, edo haren ezean, kontratu honi lotutako jarduerekin zerikusia duten jardueren



negozioaren bolumenarena, azken urtean izandakoen datuei dagokienez.

- Kaudimen tekniko edo profesionala

1. Azken 3 urtean honen antzeko ezaugarriak dituztenen kontratu nagusien zerrenda, haien prezioak, datak eta onuradunak adieraziz.
2. Esleipen honen lanak egiteko lan-taldearen deskribapena, alor horretan langileen gaitasuna eta esperientzia azalduz.

Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta EEE/EVEk egokitzat jotzen badu egiaztapen-bide hori.

- Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea

Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoez balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.
 - b) Azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
 - c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatu dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
 - d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, SPKLen 210.2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.
- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzerritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, tekniko eta profesionala:
1. Gaitasuna
 - Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.



- Gainerako enpresa atzerritarrek,
 - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrek edo konsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruan.
 - Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.
 - Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzerritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako Karatularen "**N**" **ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, SPKLko 56.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.

- Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoa, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek SPKLko seigarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.



8.6 "B" gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei lotutako dokumentazioa.

Lizitatzailleak honako dokumentazio hau aurkeztuko du:

- a) Azalpen memoria eta lan metodologia.
- b) Jardueren egutegia eta proposatutako epearen laburpena.
- c) Kontratua gauzatzen arituko den lan taldea.
- d) Baliabide materialak.
- e) Proposatzen diren hobekuntzak.

Nolanahi ere, Zehaztapen Teknikoen Txostenean eta baldintza-orri honetako **"O" ATALEAN** adierazitakoa esleipen-irizpideak baloratzeko behar den dokumentazio guztiak jaso behar dute lizitatzailleek gutun-azal honetan.

Halaber, atalen bat azpikontratatzeko asmorik badute, kontratuaren zein atali dagokion zehaztasunez adierazi beharko dute. Horrekin batera, azpikontratazio horren prezioa eta arduradunen gaitasun tekniko edo profesionala ere adieraziko da. Hori guztia, 9. eranskinean azaltzen den ereduaren arabera.

Azpikontratatistek geroago egin dezaketen edozein aldaketa, aldeztatik EEE/EVEren baimenaz egingo da, eta Plegu honen 24 klausula edo atalean xedatutakoa beteko da.

B gutun-azalak ez du edukiko, inola ere, lizitatzailleak eskaintzen dituen baldintza ekonomikoak edo prezioa. Eskakizun hori ez betetzeak eskaintza bazter uztea ekarriko du.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

8.7 "C" gutun-azala: Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak

Baldintza-orri honetako 1. ERANSKINEAN jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio, eta Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazitakoa beteko da. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.

Lizitatzailleek ezingo dute, SPKLko 129. eta 131. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen "M" ATALEKO eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero,



bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatzailleak.

9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

- 9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatzailleak aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.
- 9.2 SPKLen 144.1 artikulua xedatutakoa ez da aplikagarria izango, izaera armonizatua duten kontratuei lotutako proposamenen irekieraz.
- 9.3 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatzailleak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Posta elektronikoa erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatzailleak eskaintzan adierazitako e-postako helbidea.
- 9.4 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala baldintza-orri honetan adierazitako moduan kreditatu ez duten lizitatzailleak, bai eta, kasu horretan badaude, zerbitzu-entresen sailkapena kreditatu ez dutenak ere.

10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- 10.1 Esleipenari ekin aurretik, EEE/EVEk eskubidea izango du kontratuaren esleipenari uko egiteko, baldin eta behar bezala justifikatzen badu erabaki hori espedientean, edo esleitzeko prozedura bertan behera uzteko, kontratua prestatzeko arauari edo esleitzeko prozedurari lotutako arau-hausteren bat gertatuz gero,

EEE/EVEk kontratua bertan behera uztekoan, lizitatzaille bakoitzari 100 euroko kalte-ordaina emango zaio.
- 10.2 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du EEE/EVEk, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikoari erreparatu behar.
- 10.3 Baldintza-orriaren karatulako **"O" ATALEAN** adierazitako oinarrizko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.
- 10.4 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoei dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira.
- 10.5 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arrazoizko baliora gehien gerturatzen diren eskaintzak hautatzea.
- 10.6 Hasieran, eskaintza batek ezohiko edo gehiegizko balioak dituela esango da, baldin eta onartutako eskaintzen batez bestekoaren aldean, %20 azpitik egoten bada. Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela adierazi baino lehen, harekin zerikusia duten pertsonen informazioa eskatu eta eman beharko litzaieke. Gainera, dagokion zerbitzu teknikoaren



aholkularitza emango zaió eta kontratazio mahaiak txostena egingo luke. Kontratazio organoak, lizitatzailleak egindako justifikazioa eta aipatutako txostenak aintzat hartuta, eskaintza ezin izango dela bete uste baldin badu, balio ezohiko edo gehiegizkoak dituelako, proposamen hori bazter utziko du.

- 10.7 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzailerén edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen teknikoa kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko bikoia edo handiagoa duena.

11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA

- 11.1 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehienezko epea hamabost (15) egunekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatzailleek, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.

- 11.2 EEE/EVEren iritziz, eskaintza egokiena aurkeztuko duen enpresaburu hautatu ondoren eta kontratuaren formalizazio-egintzari ekin baino lehen, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio EEE/EVEri hautatutako enpresaburuak. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango du gehienez, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:

a) Zerga alorreko betebeharrak

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak ematen duena, zergak ordainduta dituela adierazten duena, edo aurkeztu beharrik ez duela.

- Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiak edo, enpresaren lurralde-esparruari erreparatuta, zerga-administrazioko estatu-agentziak emandakoa, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, eta/edo toki-erakundeak emandako ziurtagiria, hari dagozkion zergak egunean betetzen dituela adieraziz.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak: Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren Lurralde Altxortegiak emandakoa, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta-agiria edo zerga horretako azken erreziboa aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du. (4. ERANSKINA) zerga horretan bajarik ez duela hartu azalduz. Zerga hori ordaintzetik salbuetsita egonez gero, hori justifikatzeko agiria aurkeztuko litzateke.

d) Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 20. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.



e) Behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria, baldin eta betebeharrak hori finkatu bada karatulako "H" **ATALEAN**. Sektore Publikoko Kontratuen Legeko (SPKL) 84. artikuluan adierazitako bideak erabiliko dira bermea eratzeko.

f) Beste dokumentazio bat. Kontratatzeko gai den edo dituen baliabideak egiaztatzeke baliagarriak izan daitezkeen gainerako dokumentuak.

EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztu behar dira agiri horiek guztiak.

Aipatutako epean behar bezala aurkeztu ezean, lizitatzailleak eskaintza bazter utzi duela ulertuko da. Hori horrela, hurrengo lizitatzailari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki.

- 11.3 EEE/EVEk bost (5) egun baliaduneko epearen barruan esleituko du kontratua, dokumentazioa jasotzen den unetik kontatzen hasita. Esleipen hori justifikatu eta motibatu egingo da eta lizitatzaille guztiei haren berri emango zaie, jakinarazpen baten bidez (faksa/posta/posta elektronikoa) eta Kontratatzaillearen Profilean argitaratuz.

12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

- 12.1 EEE/EVEk bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeke gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzeke ere.
- 12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamabost (15) egun naturaleko epean egingo da.
- 12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, EEE/EVEk kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.
- 12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu EEE/EVEk kontratatzeke dituen barne arauan jasotako aipamenak.
- 12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, EEE/EVEk behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak EEE/EVEri kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa izango da.
- 12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.
- 12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako IFZ ere aurkeztu beharko dute.
- 12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.



13 KONTRATUA GAUZATZEA

a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.

b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.

c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita EEE/EVErentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).

e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da

f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigorretan dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.

g) EEE/EVEk ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen ezein lan.

h) Kontratuaren amaieran, EEE/EVEk ekitaldi formal bat egingo du, kontratu honen lanen hartzea, hain zuzen ere. Une horretatik aurrera, Plegu honetan aurreikusten den berme epea abian jarriko da.

14 KONTRATUAREN ALDAKETA

1. Honako kasu hauetan alda dezake kontratua EEE/EVEk:

a) SPKLen 92. artikuluan xedatutako arazoak tartean badira.

b) Baldintza-orri honetako 10. eranskinean zehazten diren arazoak tartean badira. Nolanahi ere, aldaketa horiek ezin izango dute hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu.

Kontratistak derrigorretan onartu behar ditu goraxeago aipatutako aldaketa horiek eta ez du kalte-ordainik eskatzeko eta jasotzeko eskubidea, kontratuaren xedea gauzatzeko lanen gutxitzea edo bertan behera uztea ekarriko badute ere.



2. Kontratuzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarriz eta horiek negoziatuz.
3. Kontratuzko aldaketen prezioa finkatzeko, kontratistak eskainitako prezioa hartuko da kontuan.
4. Proiektuan aurreikusi ez diren edo oso ezberdinak diren beste obra batzuk egitea, zerbitzuak edo hornidurak baldin badakartzate aldaketek, horien prezioak EEE/EVEk ezarriko ditu, aldez aurretik kontratistari jakinarazita, hiru (3) eguneko gutxieneko epean. Ezarritako prezioak onartu ezean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontrata ditzake aldaketen ondoriozko lan horiek, ezarritako prezio berean edo gauzatu ditzake zuzenean. Beste enpresaburu batekin egin daitekeen kontratazioa EEE/EVEren kontratazioari lotutako barne jarraibideen arabera egingo da; betiere, kontratuaren kantitatea kontuan hartuz.
5. Kontratuan egin litezkeen aldaketak idatziz azalduko dira.
6. Kontratuaren aldaketen ondorioz, prezioan ere aldaketarik izango balitz, haren behin betiko bermea egokituko litzateke, aldatuko litzatekeen prezio berriarekin proportzio egokian izan dadin. Hori guztia, hamabost eguneko epean egin beharko litzateke, enpresaburuari aldaketaren berri ematen zaion egunetik kontatzen hasita.
7. EEE/EVEren aldetik kontratuaren aldaketa adostuta ere, eta horrek lanen atal batzuk egiten jarraitzeko eragozpenik eragingo balu, kontratua behin-behinekoz, aldez edo betiko bertan behera uztea adostu beharko litzateke, kasuan kasu.
8. Aldaketen bideratzeak lanen atal batzuk behin-behinekoz, aldez edo betiko bertan behera uztea eskatzen badu, eta horrek interes publikoari kalte handia eragingo balio, EEE/EVEk erabaki dezake lanekin segitzea behin-behinekoz, kontratuaren arduradunak prestatuko duen proposamen teknikoaren arabera; betiere, aldaketaren arrazoia Baldintza-orri honetako klausulekin bat etorritik eta hori finantzatzeko nahiko krediturik izanik.

15 KONTRATUAREN LUZAPENA

Baldintza-orri honetako Karatulan aurreikusten diren baldintzak betez luza daiteke kontratua.

Aurreikusitako luzapenak gertatuko balira, kontratuaren prezioa hasieran zehaztutakoa izango litzateke, baina, luzapeneko urte bakoitzean berraztertu egingo da aurreko urteari dagokion KPIa aplikatuz, %85 zehazki. KPIa Estatistikako



Institutu Nazionalak ezarritakoa izango da (SPKLen 78.3 art.).

16 PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratatikak EEE/EVEren adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.

Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratatikak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, EEE/EVEk kontratistari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

17 BERMEARI DAGOKION EPEA

Ez dagokio

18 BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO BERMEA

a) Lizitatuzaileek ez dute behin-behineko bermerik aurkeztu behar

b) Kontratatikak, kontratua indarrean dagoen epe guztian zehar eta ikerlana behin betiko jasotzeko ekitaldi formalaren ondorengo hilabetera arte, behin betiko bermea jarri eta eduki beharko du, lanak behar bezala egingo direla bermatzeari begira, Plegu honetan eta Zehaztapen Teknikoen Txostenean ezartzen diren epe eta baldintzei jarraiki.

Aipatutako behin betiko bermearen zenbatekoa Plegu honetako karatulan adierazitakoa izango da.

Bermea ezartzeko bideak 3. eranskinaren arabera izango dira.

c) Kontratua bertan behera geratuko balitz, eta horren arrazoiak kontratistari egotzi dakizkioke, kontratuan jasotako prestazioak edo kantitateak itzultzeaz gain, EEE/EVEk eskubidea izango du kalte-ordaina jasotzeko, kontratatikak hartutako konpromisoak ez betetzeagatik, eta horren ondorioz, ezarritako behin betiko bermea bahituko du

19 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK

a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.



b) Kontratista edozein epetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango EEE/EVEk aldez aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak EEE/EVEk ezarriko ditu automatikoki.

c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, EEE/EVEk adostatutako azken prezioaren %20ko zigorra ezar diezaioke.

Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten EEE/EVEk kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta EEE/EVEk kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

20 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA

EEE/EVEk zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatze eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio. Zuzenketa horiek egiteko epea hamabost (15) egunekoa izango da gehienez ere.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, EEE/EVEk lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostatutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, EEE/EVEk jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

21 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

21.1 Lan arriskuen prebentzioa

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

21.2 Betebehar laboral eta sozialak

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazioa laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan,



azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiene, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratua hau sinatzeagatik EEE/EVEk ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du EEE/EVEri erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketan arazoan aurrean.

g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta EEE/EVEri ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio EEE/EVEri Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

h) EEE/EVEk hala eskatzen badiu, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio. Aurkezten ez badiu edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebeharrak bat ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, EEE/EVEk kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du, 26. klausulan edo atalean adierazten den moduan.

i) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere EEE/EVEko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

j) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

k) Behar bezala justifikatuta ez dauden atzerapenak edo dokumentazioa ez aurkezteak ekarriko du kontratua ez betetzea, eta, beraz, EEE/EVEk bertan behera



utz dezake kontratua, 26 atalean jasotzen den moduan.

21.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, EEE/EVEk eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

21.4 Hirugarrenen baimenak

EEE/EVEk bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.

22 ASEGURUAK

Kontratuak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

- a) Erantzukizun zibil profesionalaren asegurua. Aseguru honek EEE/EVErentzat diharduten profesionalek (abokatu, ingeniari edo ingeniari teknikoek) beste bati eragin ahal dizkioten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du.

Aseguru hau ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta gutxieneko kalte-ordaina ez da 300.000 euro baino txikiagoa izango.

1.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio EEE/EVEri, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, EEE/EVEren iritziz.

2.- Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, EEE/EVEK aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, EEE/EVEk eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, EEE/EVEK kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.



3.- Aseguruen inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratistei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, EEE/EVERi eman beharko dizkio azalpenak.

4.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak EEE/EVERi jakinaraziko dio. Era berean, EEE/EVEk hala eskatzen baldin badio, kontratistak aseguruen kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio

Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

5.- Kontratistaren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruen kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruen zenbatekoetara mugatuko, EEE/EVERen edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

6.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

23 EGINDAKO LANEN JABETZA. DATU PERTSONALEN ERABILERA. KONFIDENTZIALTASUNA

23.1 Egindako lanen jabetza

EEE/EVERen jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabego industrial eta komertziala ere, EEE/EVERen esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe EEE/EVEk espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabegoari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabego intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuak EEE/EVERen esku utziko dute aipatutako jabego intelektual edo industrialak.

Jabego intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak EEE/EVERi eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta aldeztu aurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daitezke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitezkeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela EEE/EVERen baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzeotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

23.2 Datu pertsonalen erabilera

Datu pertsonalen erabileratzat honako jarduerak hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea



ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako araua hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eraturako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistaratzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
 - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
 - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
 - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeke aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzeke egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.



6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, EEE/EVEk kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

23.3 Konfidentzialtasuna

Informazio konfidentzialtzat joko da kontratistak eskuragarri izango duen informazio pertsonal, kontratuko, banketxe, tekniko edota komertzial oro, kontratatutako zerbitzua egiteko informazioa, hain zuzen ere.

Kontratistak konpromisoa hartzen du modu konfidentzian erabiltzeko halakotzat jotzen den informazio oro, eta plegu honetan azaltzen den xederako baino ez du erabiliko informazioa.

Esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekotzat edo konfidentzialtzat jotzen dira eta beraien identitate eta sekretua gorde behar ditu, eta EEE/EVEk eskatutako lanak egiteko erabiliko du informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratistak edo pertsonak ezin izango dute EEE/EVEk emandako informazioa zabaldu, aldatu edo beste bati eman, kontratua gauzatzeko informazioa den aldetik.

Kontratistak konpromisoa hartzen du aipatu informazioa modu konfidentzian erabiltzeko, eta konfidentzialtasun eta sekretutasun horren berri emango die bere langileei, elkartuei edo kontratistarekin harremanak dituen edonori, EEE/EVEkiko kontratu betebeharrak modu egokian gauzatzeko behar den informazioaz, hain zuzen ere.

Aldez aurretik EEE/EVEk baimena eman ezean, eman zaion edozein dokumentu ez du erreproduzitu ezta kopiatu ere kontratistak (informazio konfidentziala izan dezakeena), zerbitzua emateko ezinbestekoa denean izan ezik.

Kontratutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hala badagokio, kontratistak dokumentuak eta kopiak itzuli egingo ditu, kontratuaren lanak amaitu eta gero, emango zaizkionak hala eskatzen badio.

Esleipendunak isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalte-galerengatik kalte-ordaina eman beharko die EEEri, legeriaren arabera lizitatzailari egotzi ahal zaizkion erantzukizunez gain.

24 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLen 209 artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, EEE/EVEk aldez aurretik eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena.

Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

b) Kontratistak azpikontratak egin nahi izanez gero, SPKLren 210 artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. EEE/EVERi azpikontratu hori adierazten



dion idatzian, aipatutako xedapen horiez gain, azpikontratua egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- (i) Kontratastak alde aurretik jakinarazi behar dizkio EEE/EVERi idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontratista bakoitzari lotutako kontratuaren aldea adieraziz.
- (ii) EEE/EVEk alde aurretik onartu behar du.

Hala ere, jakinarazitako azpikontratazioa ez onartzeko eskubidea bere gain hartzen du EEE/EVEk, baldin eta proposatutako azpikontrataren gaitasun teknikoa nahiko egiaztatuta ez badago, edo azpikontratua gauzatzeko baldintza teknikoak aski bermatuak ez badaude.

Azpikontratuak jatorrizko kontratastaren mende geratuko dira eta jatorrizko kontratasta hori izango da, EEE/EVERi dagokionez, Plegu honetan eta kontratuan zehazten diren betebeharren ardura izango duena.

25 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU-KONTRATUETAN

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta b) komunikazio idatzia euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

26 KONTRATUAREN ARDURADUNA



Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, EEE/EVEk kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariatzen aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenez egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenez dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

27 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta SPKL-en 206 artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

- (i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, EEE/EVEk egokitzen joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari EEE/EVEk eskatu eta bere horreketan gauzatu behar den lanak ordainduko litzazkioke soilik, arrazoi honengatik EEE/EVEri kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.
- (ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.
- (iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, EEE/EVE baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatu edota lanak gauzatu jarraituz, berez edo egokitzen jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

28 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKL-en 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeko eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketan bestelako foroei.



1. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA EPEA

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

Datu horiek Kontratazorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hau adierazten dut:

1. EUSKADIKO BIZITEGI ALORREAN ENERGIAREN ERABILERAREN INGURUKO IKERLANA EGITEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO kontratua esleitzeko antolatutako LEHIAKETAREN berri emateko EEE/EVEren Kontratzailearen Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
3. Kontratazorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
4. Eurekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
5. Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, () euroko guztizko eta gehieneko kantitatearekin, gehi BEZari dagokion () euroko kopurua. Guztira, () euroko zenbatekoa dena.

[...]n, 20[]ko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizatzailearen izena]

Ahalordez



2. ERANSKINA

LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

ADIERAZTEN DUT: Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. eta 50. artikuluetan araututako kontratatzeke debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorriz, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 20[]ko []aren(e)an.

[*Enpresaren/lizitatzaillearen izena*]

Ahalordez



3. ERANSKINA

BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkartzean [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], *Energiaren Euskal Erakundearen* aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Bermatutako zenbatekoa**”), [kontratuaren izena idatzi] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berariaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontaktzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoiak hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin,

20[]ko []aren(e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahdun(ar)en sinadura]



4. ERANSKINA

EKONOMIA JARDUEREN GAINENAKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

Nire erantzukizunpean, adierazten dut:

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....
.....
.....
.....
.....

[...]n, 20[]ko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]

Ahalordez



5. ERANSKINA ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

I. Aurrekariak

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE/EVE) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren energia jardueren planifikazio, koordinazio eta kontrolaren arduradun den aldetik, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren menpeko erakundea denez, EAEko energia premien bilakaeraren inguruko prospektiba azterketak eta energia egoera hobeto ezagutzeko azterketak egiten ditu, Hori guztia, EAEko energia politikoak era egokian ezarri eta finkatu ahal izateko. .

II. Azterketaren xedea

Azterketaren helburua da Euskadiko bizitegi sektorean energia-kontsumoaren erabileraren ezaugarriei buruzko informazio gaurkotua ematea Energiaren Euskal Erakundeari; baita sektorearen ezaugarriez, energiari lotutako ekipamenduez eta energiaren erabileraz informazioa ere.

III. Irismena

Azterketaren irismena honako honetan datza:

- Euskadiko bizitegi sektorean energiaren erabilerari buruzko azterlan bat egitea.
- Azterlan horren emaitza nagusiak jasoko dituen dokumentu argitaragarri bat prestatzea.

IV. Metodologia

Lanen irismena goraxeago aipatutako azterketa eta dokumentazioan badatza ere, eskaintzaileak bestelako lan osagarriak proposa ditzake, EAEko bizitegi sektorean energia-kontsumoaren erabileraren ezaugarriak hobeto eta era zehatzagoan ezagutu ahal izateko.

Sektorearen ezaugarriak

1. Etxebizitza sektorearen ezaugarriak.

Euskadiko etxebizitza sektorearen deskribapen orokorra: eraikin eta etxebizitza kopurua, motaren araberrako banaketa (lehena/bigarrena, lurraldeka, okupazio maila eta abar), ezaugarriak (tamaina, antzintasuna, okupazioa, etab.), eraikuntza eta berritze tasa.



Euskadiko bizitegi-eraikinen ezaugarri termikoak

2. Eraikinen inguratzailea.

Isolamendu termiko mailaren eta historikoki bizitegi-eraikinen inguratzailean jarri diren leiho moten azterketa, isolamenduen eta leihoen ezaugarriak, orain arte egindako leihoen renove programei buruzko laburpena.

3. Instalazio termikoak.

Historikoki EAEko bizitegi-eraikinetan jarri diren instalazio termiko moten azterketa, haien ezaugarriak, teknologia motak, erregaiak eta abar barne egonik.

4. Bizitegi-eraikin berriak.

EAEEn, gaur egun, eraikitzen diren bizitegi-eraikin berrien energia-ezaugarrien azterketa: energia-kalifikazioa, hormetan eta leihoetan isolamendu maila, instalazio termikoak, energia berriztagarrien erabilera eta abar.

5. Etxebizitzako ekipamendua.

Informaziorik baldin bada, EAEEn etxetresna elektrikoaren energia-kalifikazioaren eta energia-kontsumoaren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa. Orain arte etxetresna elektrikoak ordezkatzeari begira egindako renove programei buruzko laburpena.

Energiaren erabilera

6. EAEko bizitegi sektorean energia-kontsumoaren bilakaera.

EEE/EVEn eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta, bizitegi sektorean energia-kontsumoaren bilakaeraren nondik norakoaren laburpena egingo da.

7. Eustatek, 2008an, ingurumenaz/familiez egindako inkestaren datuen ustiapen eta azterketa, energiari lotutako atalei dagokienez.

Eustatek, 2008an, familientzako inkesta bat egin zuen ingurumenaz, eta bertan etxeko energia-kontsumoaren ohiturei buruzko datu ugari azaltzen da. Horretaz guztiaz informazio gehiago webgune edo helbide honetan: http://www.eustat.es/estadisticas/tema_217/opt_1/ti_Encuesta_de_Medio_Ambiente_-_Familias/temas.html. Egin beharreko lanen artean, inkesta horren emaitzen gaineko azterketa eta laburpena daude, Eustatek argitaratutako informazioan oinarrituta, eta behar izanez gero, Eustati bestelako datuak eskatuko litzaioke inkestaz (eskualdeko datuak, datuen arteko erlazioak eta abar).

8. Tarifak eta elektrizitate-kontsumoa bizitegi sektorean.

Elektrizitatea banatzen duen enpresari EAEko etxeko sektorean tarifez informazio estatistikoa eskatuko zaio, geroago laburtu eta aztertzeko informazio horren atal hauek: kontratatutako potentziak, ordutegi motak, karga tipikoen kurbak, energia-kontsumoak eta kontsumitzailearentzako kostuak. Aztertzaileak EEE/EVEn laguntza izango du operatzaileari informazioa eskatzeko eskaera egitean.

9. Tarifak eta gas-kontsumoa bizitegi sektorean.



Gasa banatzen duen enpresari EAEko etxeko sektorean gas-kontsumoaz eta kostuez informazio estatistikoa eskatuko zaio, lurraldeka eta kontsumitzaile motaren arabera. Geroago laburtu eta aztertzeke informazio hori.

10. Energiaren kostua bizitegi sektorean.

Ohiko edo batez besteko etxebizitza batean energia-kontsumoaren ondoriozko kostu guztiak aztertzea, eta batez besteko familia-errentarekin konparaketa egitea. Azken urte hauetan adierazle horren bilakaera ere aztertuko da.

Eskaintzaileak egokien deritzon metodologia proposatu ahal izango du, eskatuko zaizkion lan hauek ahalik eta zehatzen egiteko: adituekiko elkarrizketak, instalazioak baimentzeko erregistroen laginketa edo azterlana (Industria Saila, Arkitektoen Elkargoa), eskuragarri dauden argitalpen edo ikerketa lanen azterketa, energia-operatzaileei kontsultak, Eustat, Visesa eta abarrei kontsultak. Esleipendunak EEE/EVEren laguntza izango du energia-operatzaileei, eta erakundeei informazioa eskatzean. Informazio estatistikoa eskuratzeko dirurik ordaindu beharko balitz, EEE/EVEk ordainduko luke.

Nolanahi ere, EEE/EVEk esleipendunaren esku jarriko du haren informazio guztia honako gai hauetaz: energia-kontsumoa bizitegi sektorean, kontsumoari buruzko estatistikak, CADEMen energia-ziurtapenak, leiho, galdara eta etxetresna elektrikoen renove planak.

V. EEE/EVEri eman beharreko materiala edo produktuak

1. Azterketaren txostena. Esleipendunak azken dokumentua egingo du, eta bertan azterketaren informazioa azalduko da.
2. Argitaratzeko txostena, azterketaren laburpena izango dena, 20 eta 50 orrialderen artekoa, argitaratzeko nahiko kalitatea izango duena, gaztelaniaz eta euskaraz.
3. Azterketaren bilakaerari buruzko txostenak aldi berean behin.
4. Lanen azken aurkezpena EEE/EVEri.



6. ERANSKINA

ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

Enpresa lizitatzaileraren izena	
IFK / IFZ Jarduera nagusia	
Helbide soziala	Zentrala:
	Bulegoak EAEn:
Harremanetarako	Harremanetarako pertsona:
	Helbidea:
	Tel.:
	Faxa:
	e-mail:
Langile-kopurua	Guztira:
	EAEn:
Negozio bolumena	Guztira:
	EAEn:
Akziodunen edo enpresa taldearen izena	
Kudeaketa sistemen ziurtapena (ISO, UNE edo baliokideak)	



7. ERANSKINA

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO EREDUA (hautazkoa aurkeztea)

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

ADIERAZTEN DU

(*) zenbakidun kontratazio-espeditako (*gutun-azala zein den zehaztu*) gutun-azalean jasotako agirietatik, jarraian aipatzen diren informazioak eta eskaintzako alderdiak konfidentzialak direla, merkataritzako sekretuekin edo sekretu teknikoekin lotura izateagatik. Hauek dira, beraz, agiri konfidentzialak:

Adierazten du, baita ere, agiri horiek konfidentzialak direla ondoko arrazoi hauengatik:

[...]n, 2011ko []aren ...(e)an.

(*Lekua, eguna eta sinadura*)

(*) Plegu honetako karatulan dagoen espeditako zenbakia idatzi.



8. ERANSKINA ALDI BATERAKO ENPRESA ERATZEKO KONPROMISOA

Alde batetik,..... jaunak/andreak,
..... zk.ko NAN duenak,.....ren
ordezkaritzan (IFK.....,sozietate helbidea:
....., telefonoa....., faxa.....

Bestetik,..... jaunak/andreak,
..... zk.ko NAN duenak,.....ren
ordezkaritzan (IFK.....,sozietate helbidea:
....., tel.efonoa....., faxa.....

ADIERAZTEN DUTE

- I. Ordezkatutako enpresek [...] lehiaketan batera eta bat eginik parte hartzeko konpromiso hartzen dutela, eta esleipendunak izanez gero, [...] izeneko aldi baterako enpresa eratzera obligatzen direla.
- II. Aldi baterako enpresa osatuko luketen enpresa bakoitzaren partaidetza hauxe izango litzatekeela:
 - [...]
 - [...]
- III. Kontratazio-organoaren aurrean ordezkatzeari begira, hau izenpetzen dutenek hauxe aukeratu dutela:..... jauna/andrea, adinez nagusia,,,,.....zk.ko NAN duena,.....kalea, zk.an bizi dena, telefonoa.....eta faxa....., eta beraz, ABE edo UTEren ordezkaritza osoa izango duela.

.....(e)n, 20[...]koaren ...(e)an

[...]

[...]

Ahalordez

Ahalordez



**9. ERANSKINA
AZPIKONTRATATZEKO ADIERAZPENAREN EREDUA**

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

ADIERAZTEN DU

Azpikontratazio hau,

JARDUERA	KONTRATUAREN PREZIOAREN EHUNEKOA (BEZa gabe)	ENPRESA AZPIKONTRATISTA

() Erantsi azpikontratatzeko konpromisoa edo gutuna eta enpresa azpikontratisten kaudimen teknikoari edota profesionalari lotutako baldintzen inguruko erreferentziak.*

[Lekua, eguna eta sinadura]



EVE | Ente Vasco
de la Energía

10. ERANSKINA

KONTRATUA ALDATZEKO ARRAZOI KONBENTZIONALAK

Kontratua honako arrazoi hauegatik alda daiteke:

- Lanen unitateak gehitu, murriztu edo kentzeagatik.



11. ERANSKINA

GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENA

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

[...] espediente zenbakia duen LEHIAKETari dagokionez,

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen duen pertsonak edo erakundeak ez du zigor larririk jaso, ezta kondenarik ere, erabaki administratiboaren bidez edo epai irmoaren bitartez, langileen estatutuaren edo aplikagarria den lan itunaren berdintasunari lotutako betebeharrak ez betetzeagatik.

Ez dagoela zigortuta, eta, beraz, ez du debekurik laguntza eta diru laguntza publikoen onuraduna izateko, 4/2005 Legearen 24,2 artikulua arabera, otsailaren 18ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaz diharduena.

3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen duela, martxoaren 22ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eragingarriaz diharduena.

KONPROMISO HAU HARTZEN DU

Otsailaren 18ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaz diharduen 4/2005 Legeak xedatzen dituen betebeharrak bere gain hartzeko, administratibotik laguntza jaso, harekin kontratuak egin edo lankidetzan aritzen diren erakundeei dagokienez:

- Honako printzipio hauek betetzeko konpromisoa: tratu berdina, aukera berdintasuna, dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea langile guztien artean (3. artikulua).
- Haien jardunetan genero-ikuspegi integratzeko, ekintza positiboa bultzatzeko, sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerrarazteko konpromisoa (3. artikulua).
- Zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu izateko konpromisoa (23. artikulua).
- Estatistika eta azterlanak prestatzerakoan, genero-ikuspegia kontuan hartzeko konpromisoa, sexuaren araberako datuak bildu eta aurkeztuz (6. artikulua).
- Sortzen dituzten dokumentu eta euskarrietan hizkera eta irudi sexista ez erabiltzeko konpromisoa (18.4 artikulua).

Eta horrela jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen du,, 20...,, ...

Sinadura